

2015eko EAEko AURREKONTUAK: MURRIZKETA SOZIAL GEHIAGO

MURRIZKETA SOZIALAK ZORRA ETA AHT ORDAINTZEKO

Ez da egia murrizketa sozialik egiten ez denik. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politikaren oinarria murrizketak dira: 2015an 2009an baino 871 milioi euro gutxiago bideratuko ditu bere eskumenek eragiten dituzten gastuak ordaintzera:

- 263 milioi euro gutxiago Hezkuntzan, Osasungintzan 118 eta Etxebizitzan berriz, 110 milioi gutxiago.
 - Eusko Jaurlaritzak Osasungintzara bideratzen duen aurrekontua ELGEren batez besteko mailarekin parekatzeko urtero 1.141 milioi gehitu beharko litzateke, eta Hezkuntzakoa, 1.090 milioi.
 - Epealdi honetan pobrezia zeharo hedatu da, baina gizarte-prestazioak %7 beheratu dituzte (DBE eta kontziliatzeko laguntzak barne), eta jasotzeko eskubidea izateko eskakizun berriak ezarri dira.
 - Enplegu publikoa murriztu eta soldatak izozten dira, baita azpikontratetan ere.
- Eusko Jaurlaritzak beste gauza batzuetarako badauka dirua. Esaterako:
- AHTrako aurreikusi den kopurua ia 280 milioi hazi da.
 - Zor publikorako gastua ia 900 milioi euro gehitu da.

FISKALITATEAK BALDINTZATZEN DU DENA

Krisi ekonomikoaren ondorioz diru gutxiago biltzen dela diote. Faltsua da. Baliabideak eskasak badira, Foru-Ogasunek aplikatzen duten zerga-politikaren ondorio da. Jaurlaritzak eta hiru Ogasunek Finantzen Euskal Kontseiluan erabaki dute ez dutela zerga-politika aldatuko:

- Iruzur fiskala ahalbidetzen zaie soldatapeko ez diren errentei, eta zergak murriztu dizkie zergadun aberatsenei, enpresen eta kapitalen errentei. Ondorioz, EAEn urtero 4.660 milioi euro gutxiago biltzen da, Europar Batasuneko batez besteko mailaren aldean. Dirutza horrekin murrizketa guztiak saihesteko modua legoke, eta sobera diru izango litzateke osasungintzara edota hezkuntza, etxebizitza eta bazterketa sozialera bideratzen diren kopuruak bikoizteko.
- Foru-Ogasunek diru-bilketa zeharo jaustea eragin dute; urtero 2008an adina bildu izan balute, metatutako diru-sarrerak 7.037 milioi euro handiagoak izango ziratekeen.
- Zorra handitzea diru gutxiago biltzearen ondorio da. Eusko Jaurlaritzak zorretan sartu da, eta era berean zerbitzu publikoak hondatu eta gizarte-prestazioak murriztu ditu. Bidezkoa al da gizarte guztiak ordaintzea elite ekonomikoen mesedetan pilatu den zorra ordaintzeko?



ZERGA-POLITIKA ETA AURREKONTUEN ALDAKETAREN ALDE

Diru-bilketaren eta gastu publikoaren maila ez daude berez finkatuta. Alde handia dago Europar zehar. Hego Euskal Herriko erakundeetan agintzen dutenek egin duten aukera: elite ekonomikoaren onerako eta oro har gizartearen kalterako politikak egitea.

Hedabideetako eztabaida oso mugatua da: biltzen diren baliabide urriak nola kudeatu, hots, esparru batetik kendu, bestean gasta tzeko. Ezinbestekoa eta premiazkoa da taxuzko debate bat, gizarte honetan behar diren zerbitzu eta prestazioei buruz, eta hauek finantzatzeko moduari buruz. Oposizio guztiak (PSE-EEK, PPK eta EH BILDUK) eskaintza patetikoa egin dio Jaurlaritzari, honek aurkeztu duen aurrekontu proiektua negoziatzeko, alderdiek bazekiten arren bere doikuntza politika aldatzeko aukerarik ez zegoela.

ELAk zerga- eta aurrekontu-politika erabat aldatzea galdatzen du. Europar batez besteko mailara iritsi behar dugu gizarte-babesari eta zerga-presioari dagokionez. Borondate politiko kontua da.

Eskari horri eta mobilizazioari eutsiko diogu.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

PRESUPUESTOS CAPV 2015: MÁS RECORTES SOCIALES

RECORTES SOCIALES PARA PAGAR LA DEUDA Y EL TAV

No es verdad que no haya recortes sociales. Precisamente la política presupuestaria del Gobierno Vasco se basa en los recortes. En 2015 destinarán 871 millones de euros menos que en 2009 a cubrir los gastos generados por sus competencias:

- 263 millones de euros menos en Educación, 118 en Salud y 110 en Vivienda.
- Para equipararnos a la media de la OCDE el presupuesto del Gobierno Vasco destinado a Salud debería aumentar en 1.141 millones anuales, y el de Educación, en 1.090.
- En este periodo la pobreza se ha disparado, pero todas las prestaciones sociales se han recortado en un 7% (incluidas la RGI y las ayudas a la conciliación), y se han añadido nuevos criterios de acceso que obstaculizan su percepción.
- Se recorta el empleo público y se congelan los salarios, también en las subcontratas.

Pero el Gobierno Vasco, en cambio, sí tiene dinero para:

- El TAV: la dotación ha crecido en casi 280 millones.
- La deuda pública: ha aumentado en 900 millones de euros.

LA FISCALIDAD TIENE MUCHO QUE VER

Dicen que se recauda menos por la crisis económica. Es falso. La falta de recursos se debe a la política fiscal aplicada por las Haciendas Forales. El Gobierno y las 3 Diputaciones han acordado en el Consejo Vasco de Finanzas no cambiar la política fiscal:

- Se permite el fraude fiscal a las rentas no salariales y se han reducido los impuestos a las rentas altas, empresariales y del capital. Como consecuencia, todos los años se recaudan en la CAPV 4.660 millones de euros menos que la media de la Unión Europea. Con ese dinero, se podrían evitar todos los recortes y sobraría para doblar el gasto en salud, o el conjunto del gasto en educación, vivienda y exclusión social.
- Las Haciendas han dejado caer en picado la recaudación. Si se hubiese recaudado cada año lo mismo que en 2008 los ingresos acumulados habrían sido 7.037 millones de euros más.
- El incremento de la deuda se debe sobre todo a la menor recaudación. El Gobierno Vasco se ha endeudado a la vez que ha recortado los servicios públicos y las prestaciones sociales. ¿Es legítimo anteponer el pago de esta deuda al bienestar de la ciudadanía?



POR UN CAMBIO DE LA FISCALIDAD Y LOS PRESUPUESTOS

El nivel recaudatorio y el gasto público no son algo dado. Hay grandes diferencias en Europa. Quienes gobiernan las instituciones de Hego Euskal Herria han optado por beneficiar a una élite económica en detrimento del conjunto de la sociedad.

El debate mediático se ciñe a cómo gestionar los escasos fondos recaudados que tenemos, de dónde quitar para poner en otro sitio. Resulta necesario y urgente un debate de fondo con contenidos reales sobre los servicios y prestaciones que se requieren en esta sociedad y cómo se deben financiar. Es patético que toda la oposición (PSE-EE, PP y EH BILDU) se ofrezca para pactar el presupuesto presentado por el Gobierno Vasco, que ya desde el inicio no ofrecía posibilidad alguna de cambiar sus políticas de ajuste.

ELA reclama un cambio radical de la política fiscal y la política presupuestaria. Es necesario equipararse a la media europea en protección social y en presión fiscal. Es posible, es cuestión de voluntad política.

Vamos a seguir exigiéndolo y movilizándonos por ello.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA